

Etorkinak eta joaleak

Deia, 1977-08-25.

Orain arte, etorkinez, inmigranteez, aritu izan gara.

Gaurtik, Gipuzkoan joaleak edo emigranteak hasi dira gehitzen, eta etorkinak baino gehiago izaten.

Hau, ona izan zitekean.

Baina, txarra da.

Aspaldi esan dugu gure artean, kanpotarrak arazo asko sortu dizkigutela: Egia da batetik lan egiten dutela eta herriarentzat irabazi bat sortzen dutela, baina bestetik Gipuzkoa eta Bizkaia bezalako lur laburrak leporaino betetzen lagundu-edo digute, urbanismo arazo asko sortu, eta batez ere kultura eta hizkuntzari dagokionez, kalte izugarri bat ekarri digute.

Ez da hoierruz, baina ondorioa halakotxea izan da.

Baina orain, eta lehenengo aldiz. Gipuzkoan etorkinak baino joaleak gehiago dirala konturatu da.

"Aralar taldea"-k hemen esan berria digunez, iaz Gipuzkoatik 1.480 pertsona gehiago urten dira, honera bizitzera etorri diren etorkinak baino.

Hau, berez, ez litzateke izugarria izango; arintze huts bat bezala hartuko bagenu.

Baina, joaten hasi direnak langile espezializatuak eta profesionalak badira, eta etortzen ari direnak, peoiak?

Hemen ez du ajolik *zenbatak*, *nolakoak* baizik.

Eta hontaz ere ba ditugu datu batzu:

Lanik egiteko gai ez direnak 1976-an 1.229 pertsona gehiago dira, eta irten direnak; 53 ez beste guztiak: Profesional eta tekniko (67), administralgoan lan egiten dutenak (39), salerosleak (18), langileak (33) eta beste zereginetan dabiltenak (147), eta hala, urtean zehar Gipuzkoak 1.480 langile galdu ditu.

Hau da gure kezkarako kontuan eduki behar duguna.

Hemen ba du zer ikusia dirua eta industriaren joerak; gure herriak hartu behar ditu lehen bait lehen arazo hoierruz kontrolak.

Bestela, ez dugu Euzkadi pizkor eta lan-eraginkor bat osatzerik izango; eta behar dugu hauxe lortu.